

azken portuko tabernan • ane sarasketa

▼ gari garaialde / argazki press

Jon Arretxe



«Momentua dastatzea da kontua, uste dut»

NORTASUN AGIRIA

Jon Arretxe Perez dut izena, Basaurin jaio nintzen 1963an. Gasteiz eta Basauri artean bizi naiz. Bidaiatzea, kirola egitea eta ikastea maite ditut, besteak beste. Dagoen irakaslerik onena bizitza da. Euskal Filologian doktorea eta heziketa fisikoan lizentziaduna naiz. Lotsatia ere bainaiz, inork sinesten ez didan arren

EHUren Gasteizko campusean elkar-tu ginen Jon Arretxerekin, kafetegian. Urteak egin ditu bertan, ikasle eta irakasle moduan. Erantzungailuan jarrita duen mezuak oso tonu serioa du, baina, gero, tarteka, umore puntua duela erakusten du Arretxek. Garai bateko Gasteizko ostegunak sumatzen ditu faltan.

■ **Ikaslea, irakaslea edo bidaiaria. Ez dakit nola aurkez zaitzakedan.**

Irakasle izan nintzen Gasteizko Irakasle Eskolan. Gero, utzi egin nuen. Eta, orain, gauza asko egiten ditut, oso ezberdinak gehienak.

■ **Irakasle izatetik ikasle izatera igaro zara orduan?**

Ingeles filologiari ekin diot berriro. Ingelesa praktikatu eta ingeles literatura ezagutzeko aukera paregabea da.

■ **Pertsona serioa zarela diote, baina zure ba-**

rruan deabrutxo txiki bat daramazula ere esaten dute.

Ez nuke serio hitza erabiliko neure burua aurkezteko. Jakina, serioa izan behar denean, serioa izaten saiatzen naiz.

■ **Eta deabrutxoaren kontu hori?**

Akaso, bai. Badut keinutxo hori, bai.

■ **Zer duzu eskuartearen? Zerbait idazteko asmoa?**

Orain arte egin dudanarekin apurtu nahiko nuke. Literatura ganberroa egin dut batetik. Bestetik, literatura serioa, bidaien ingurukoa. Zerbait berria egin nahiko nuke orain.

■ **Irakaslea baino gehiago ikasle izatea gustatzen omen zaizu.**

Euskarazko irakasle izan naiz, eta, gero, Irakasle Eskolan. Baina ikasle beti izan naiz. Gainera, bizitza da dagoen eta irakaslerik onena.

■ **Bidaiatzen noiz hasi zinen?**

Nire lehen soldata xahutzearen egin nuen nire lehen bidai, 18 urterekin. Pentsatu gabe egin nuen. Ekialdeko Europara joan nintzen, hainbat herri oraindik komunistak zirenean. Gero, Afrikara pasatu nintzen, eta, ondoren, besteak egin nintzen.

■ **Besteak, zeintzuk?** Afrika iparraldea eta Afrika beltza. Gero, Asiara joan nintzen, eta, hala, egun arte. Bidaiatzea droga bat bezalakoa da niretzat, egun.

■ **Zer bilatzen duzu?**

Ezer ez. Behar bat da. Ez da ihesbidea edo beste ezer.

■ **Eta nola aukeratzeko dituzu herriak?**

Ez dago arau zehatzik. Norbait zerbait entzun diodalako herri baten inguruan, edo zerbait irakurri dudalako... Ez dut ezer zehatzik.

■ **Beldurrik sentitu al duzu inoiz?**

Askotan, eta handia. Baina beldurra, bakardadea sentitzea, batzuetan, ona da.

■ **Hurrengo bidai, nora?**

Ez dut ezer pentsatuta. Gainera, ez dut bidaiak aldeztu aurretik prestatzen. Momentuan, bururatzen zaidanean, egingo dut, eta kito. Unea dastatzea da kontua, uste dut.

■ **Liburu bat idazteko leku bakartuetara joateko ohitura duzu. Diziiplina gogorra dirudi horrek.**

Arazoa zera da: ez dudala diziplinarik. Orduan, leku lasai batera joan beharra dut, aspertuko naizen lekuren batera;

bat-batean

- **Euskal Herriko txoko bat.** Urdaibai.
- **Parrandarako giro eta une aproposa?** Garai bateko Gasteizko ostegunak.
- **Munduko txokorik gustukoena.** Denak bereziak dira. Bat edo beste aipatzekotan, akaso, India eta Amazonas esango nituzke.
- **Liburu bat?** *Alkimista*.
- **Egile bat?** Obra zalea naiz idazle zalea baino gehiago.
- **Afari perfektua?** Egun bakoitzean ezberdina.
- **Ametsik?** Ametsak errealitate bihurtzea. Zorionez, orain arteko ametsak bete egin ditut. Hala jarraitu nahiko nuke.

egiteko beste ezer izango ez dudan leku batera. Silosko monasterioan (Burgos) idatzi dut pare bat liburu. Edo baserrian bizi den lagun baten etxean. Hala idazten dut.

■ **Lagunartea gustatzen zaizu; batik bat, afariak. Afari baten truke edozer egiteko gai zarela jakin dugu. Baita izorratutako bideo bat erregalatzeko ere!**

Ez nekien bideoa izorratuta zegoenik, baina, zorionez, afaldu eta gero konturatu ziren ez zebilela tramankulua. Egia da asko gustatzen zaizkidala lagunarteko afariak. Ez da kirolarekin guztiz osagarria. Baina, bizitzan, denetarako denbora hartu beharra dago.

■ **Musikaria ere bazara.**

Pianoko ikasketak ditut, eta, orain, kantua ikasten nabil. Baxua naiz.

■ **Kirolaria ere bazara. Duatloiak eta triatloiak egiten zenituen garai batean.**

Orain ere banabil. Aurtengo denboraldia serio entrenatzeko asmoa dut. Eta hala ekin diot.

■ **Galtzaile txarra zara, ezta?**

Ez zait galtzea gustatzen. Baina ez naiz haserre bizian jartzen, e? Neure buruarekin sentitzen naiz gaizki.

■ **Tau-Baskoniaren jarraitzailea zara, satoarekin eta ogitartekoarekin joaten zara partidetara.**

Ikusteko dagoen eta kirolik politena iruditzen zait. Eta, gainera, ogitarteko on batekin eta Errioxako ardoarekin lagunduta, hobeto.

zirika



aritz gorrotategi

Astronautak eta Olinpiadak

Iraken oso merke daude etxebizitzak. Oraindik ere suntsitutako herriak berreraikitzen ari dira. Haurrek ez dute gogoratzen nola zena bere herria. Buztina eta harria nahastuz sortzen dituzte irudimenezko herriak. Arratsaldean, auzoko enparantzan elkartzen dira plastikozko soldaduekin jolasteko. Beti galtzen dute amerikarrek. Inork ez du soldadu horiekin jolastu nahi. Normalean, arroka baten gainean lerratzen dituzte eta harrika botatzen dituzte denak jarraian. Batzuetan, eskolara joaten dira geografia eta erlijioa ikastera. Mapamundi erraldoi batean begiratzen dute mundua.

Ogiz egina balego, jan egingo lukete. Irakasleak olinpiadak heldu direla adierazten die. Urtetik urtera, AEBek antolatzen dituzte. Duela hamahiru urte, Iraken ospatu zituzten. Berriki, Kosovon eta Afganistanen izan dira. Japoniarrek ez dituzte ahaztu Hiroshima eta Nagasiko olinpiadak. Aurten, urte beltzez eginiko dominak zintzilikatuko dituzte irabazleek.

Bitartean, adin nagusikoek bonba atomikoaren aurkako babes tokiak eraikitzen dituzte. Ez dute Goya sarietan egin zen protestaren aditzerik. Baten batek «Sadam maite dugu» hitzak marraztu ditu aurreko gerrak

puskaturiko murru batean. Gehienak, ordea, isilik bizi dira. Ibrahim zaharrak argazki bat ateratzen dio familiako etxeari. Ondoren, bere biloba Farzanehri erakutsi dio. «Ez duzu berriro horrela ikusiko», adierazi dio zerura begira. Une batez, hegazkinen zarata entzun duela iruditzen zaio. Egunez entzuten ditu hegazkinak. Inoiz ez da halako batean sartu. Astronauta batzuk zerutik behera erori direla aditu dute duela gutxi irratian. Farzanehek galdera bat egin dio aitonari.

-Ben Ladenek egin al du hori?

-Auskalo...